

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O 2021eko ekainaren 26tik uztailaren 2rako astea.

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2021/06/26

- **GARRAIOEN, MUGIKORTASUNAREN ETA AGENDA URBANOAREN MINISTERIOA. – Posta zerbitzu unibertsala.** – Ebazpena, 2021eko ekainaren 15ekoa, Idazkaritza Orokor Teknikoarena, Ministroen Kontseiluaren 2021eko ekainaren 1eko Erabakia argitaratzen duena, posta zerbitzu unibertsala emateko plana onestekoa. [10668 xedapena - 65 or.](#)

2021/06/28

- **OGASUN MINISTERIOA. - Aurrekontuak.** - HAC/669/2021 Agindua, ekainaren 25ekoa, 2022. urteko Estatuko Aurrekontu Orokorrak egiteko arauak ematen dituenak. [10684 xedapena - 55 or.](#)

2021/06/29

- **OGASUN MINISTERIOA. – Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga.** – Ebazpena, 2021eko ekainaren 25ekoa, Tributuen Zuzendaritza Nagusiarena, zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari buruzkoa. [10745 xedapena - 12 or.](#)
- **BARNE MINISTERIOA. - Mugak.** - INT/677/2021 Agindua, ekainaren 28koa, zeinaren bidez aldatzen den uztailaren 17ko INT/657/2020 Agindua, zeinak irizpideak aldatzen dituen nahitaezkoak ez diren bidaiak aldi batez murrizteko hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen akordioko beste herrialdeetara, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondoriozko ordena publikoko eta osasun publikoko arrazoiengatik. [10746 xedapena - 3 or.](#)

2021/06/30

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. – Premiazko neurriak.** – Akats-zuzenketa, honako errege lege-dekretu honena: 13/2021 Errege Lege-dekretua, ekainaren 24koa, zeinaren bidez aldatzen diren COVID-19ak eragindako osasun krisiari aurre egiteko prebentzioko, eusteko eta koordinaziorako premia-akzio neurriei buruzko martxoaren 29ko 2/2021 Legea, eta garraioaren eta etxebizitzaren alorrean COVID-19aren eraginari aurre egiteko berraktibazio ekonomikoko neurriei buruzko uztailaren 7ko 26/2020 Errege Lege-dekretua. [10818 xedapena - 1 or.](#)
- **GARRAIOEN, MUGIKORTASUNAREN ETA AGENDA URBANOAREN MINISTERIOA. – Trenbide Zirkulazioaren Erregelamendua.** - 469/2021 Errege Dekretua, ekainaren 29koa, zeinaren bidez aldatzen den Trenbide Zirkulazioaren Erregelamendua onesten duen uztailaren 17ko 664/2015 Errege Dekretua. [10822 xedapena - 3 or.](#)

- **OSASUN MINISTERIOA. – Administrazio kontratazioa.** - SND/682/2021 Agindua, ekainaren 29koa, sendagaiak eta osasun produktu eta zerbitzuak kontratazio zentralizatuko ondasun deklaratzeko dituenak. [10826 xedapena - 5 or.](#)
- **GAI EKONOMIKOEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA. – Berandutze interesa.** - Ebazpena, 2021eko ekainaren 29koa, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiarena, 2021eko bigarren seihileko naturalean merkataritza-operazioei aplikatu beharreko berandutze interesaren legeko tasa argitaratzen duena. [10869 xedapena - 1 or.](#)
- **Aseguru pribatuak. Aseguru eta berraseguruen erakundeak.** - 1/2021 Zirkularra, ekainaren 17koa, Aseguruen eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiarena, primen tarifen, kontabilitateko hornidura teknikoaren eta kaudimeneko hornidura teknikoaren kalkuluan aplikatutako hipotesi biometrikoren egokitasuna bermatzeko behar diren alderdi kuantitatibo eta kualitatiboak buruzkoa; eta apirilaren 17ko 1/2018 Zirkularra aldatzen duena. Horren bidez garatzen dira txosten-ereduak, jardura-gidak eta banako nahiz taldeko egoera finantzarioari eta kaudimenari buruzko txostena berrikusteko txosten bereziaren irismenaren aldizkakotasuna, eta txostena egitearen arduraduna. [10870 xedapena - 10 or.](#)

2021/07/02

- Europako Fiskaltza. - **9/2021 Lege Organikoa, uztailaren 1ekoa, Kontseiluaren 2017ko urriaren 12ko 2017/1939 (EB) Erregelamendua aplikatzekoa.** Horren bidez, Europako Fiskaltza sortzeko kooperazio indartua ezartzen da. [10957 xedapena - 49 or.](#)
- **Aireko segurtasuna.** - Ebazpena, 2021eko ekainaren 21ekoa, Aireko Segurtasunaren Estatuko Agentziaren Zuzendaritzarena, COVID-19aren pandemiarekin lotuta, aireko bidaiariak eta abiazio-langileak kudeatzeko gidalerro operatiboak eguneratzen dituenak. [10959 xedapena - 28 or.](#)

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2021/06/29

- GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA. - **28/2021 EBAZPENA, ekainaren 2koa, Jaurkitzearen Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita Ogasun Ministerioaren, Zerga Administrazioaren, Zerga Administrazioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren arteko lankidetzaren hitzarmena, COVID-19aren pandemiari aurre egite aldera enpresen kaudimena bultzatzeko aparteko neurrien martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege dekretuaren 4.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuz egina.** [3699 xedapena - 12 or.](#)

2021/06/30

- **XEDAPEN OROKORRAK. - LEHENDAKARITZA.** - 2/2021 LEGEA, ekainaren 24koa, COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriak buruzkoa. [3721 xedapena - 39 or.](#)

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2021/06/28

- **OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 20/2021 Foru Dekretua, maiatzaren 25ekoa. Onespea ematea 2021eko aurrekontu ekitaldia ixteko eragiketei eta ekitaldi horretako hondarren ordainketak arautzeari. [2328 xedapena - 7 or.](#)
- **OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 25/2021 Foru Dekretua, ekainaren 8koa. 2021eko aurrekontu ekitaldiaren amaierako eragiketak eta ekitaldi horretako hondakinen ordainketen arauketa onesten dituen maiatzaren 25eko 20/2021 Foru Dekretuaren Eranskineko hirugarren artikuluan aurkitutako akats materialaren zuzenketa onestea. Zuzendua: 2021/2328. [2329 xedapena - 2 págs.](#)

2021/06/30

- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** - Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 406/2021 Foru Agindua, ekainaren 23koa. Onestea 234 eredua ('Zerga plangintzako mugaz gaindiko mekanismo jakin batzuei buruzko informazioa aitortpena'), 235 eredua ('Mugaz gaindiko mekanismo merkaturagarri jakin batzuk eguneratzeari buruzko informazio aitortpena') eta 236 eredua ('Zerga plangintzako mugaz gaindiko mekanismo jakin batzuk erabiltzeari buruzko informazio aitortpena'), bai eta horiek aurkezteko epeak eta moduak ere. [2361 xedapena - 16 or.](#)
- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren 408/2021 Foru Agindua, ekainaren 25ekoa. Aitortu beharra dakarten zerga plangintzako mugaz gaindiko mekanismoetan esku hartzen eta parte hartzen dutenen arteko jakinarazpen ereduak onesten dituen. [2389 xedapena - 6 or.](#)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2021/06/30

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/1068 (EB) Erregelamendua, 2021eko ekainaren 24koa, zeinaren bidez aldatzen den 2016/1628 (EB) Erregelamendua, 56 kW-ko edo gehiagoko eta 130 kW baino gutxiagoko potentzia-tarteak edo 300 kW-ko edo hortik gorako potentzia duten motorrak dituzten zenbait makinari aplikatu beharreko xedapen iragankorrei dagokienez, COVID-19aren krisiaren eraginari aurre egiteko (testu egokia EEEen ondorioa izan dezan). [L 230/1 xedapena - 3 or.](#)

2021/07/02

- BATZORDEAREN 2021/1084 (EB) BETEARAZPEN ERABAKIA, 2021eko ekainaren 30ekoa, zeinaren bidez aldatzen den Estatu kide jakin batzuetan patogenotasun handiko hegazti-gripearen agerraldiei buruzko larrialdi-neurriei buruzko 2021/641 (EB) Betearazpen Erabakiaren eranskina. [L 235/14 xedapena - 13 or.](#)
- KONTSEILUAREN 2021/1085 (EB) GOMENDIOA, 2021eko uztailaren 1ekoa, zeinaren bidez aldatzen den funtsezkoak ez diren EBrako bidaiak aldi baterako murrizteari eta murrizketa hori kentzeari buruzko 2020/912 (EB) Gomendioa. [L 235/27 xedapena - 4 or.](#)
- 15/2021 Txosten Berezia. Aireko bidaiarien eskubideak COVID-19aren pandemian: Batzordearen ahalegina gorabehera, ez dira funtsezko eskubideak babesten (2021/C 258/05). [C 258/5 xedapena - 1 or.](#)

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO